



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko uztailaren 3a

67. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (7. or.).
- Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (13. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Arartekoaren kontu orokorrari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua eta norainokoa (2. or.).
- II. Iritzia (2. or.).
 - II.1. 2005eko aurrekontuaren betetze maila (2. or.).
 - II.2. Ondare-egoera (3. or.).
 - II.3. Legezketasuna (3. or.).
- III. Finantzen egoera-orriak (4. or.).
 - III.1. 2005eko ekitaldiko gastuen eta dirusarren aurrekontuaren likidazioa (4. or.).
 - III.2. Egoeraren balantzea 2005eko abenduaren 31n (5. or.).
 - III.3. Emaizten kontua eta emaitzen banaketa (6. or.).

I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2006ko jarduketa-programaren barruan sartu da arartekoaren fiskalizazio txostena egitea, 2005eko ekitaldiari buruzkoa.

Lan horrek ondoko helburuak ditu:

- 1. helburua. Arartekoaren gastuen eta dirusarren aurrekontuaren betetze mailak 2005eko ekitaldian egindako eragiketak behar bezala islatzen dituela egiaztatzea.
- 2. helburua. Ondare-egoeraren agerpena 2005eko abenduaren 31ko datan.
- 3. helburua. Fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezketasun printzipioa bete ote den egiaztatzea.

Metodologiari dagokionez, lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, Comptos Ganbera honek erabili ohi dituen auditoria prozedurak eta programak erabili ditugu, bere Auditoria Gidan jasota dituenak eta Espainiako estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriarako onetsiriko arau eta printzipioei jarraituz garatuta daudenak.

Azterketa-lana 2006ko martxoan egin zuten auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu arartekoaren bulegoko langileen laguntza, lan hau egitea erraztu duelako.

II. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, arartekoaren 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria aztertu dugu. Haren ardurapean egina da, eta txosten honetako III. atalean jaso dugu.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

II.1. 2005eko AURREKONTUAREN BETETZE MAILA

2005eko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala jasotzen du ekitaldi horretan egindako jarduera.

II.2. ONDARE-EGOERA

Egoera-balantzeak behar bezala agertzen du finantza eta ondare-egoera 2005eko abenduaren 31n.

II.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkontasun-printzipioari jarraituz egin da.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

III. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

III.1. 2005eko EKITALDIKO GASTUEN ETA DIRUSARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera

	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindurikoa	Ordaintzeke (emaitzak)
1. Langileria gastuak	581.990,00	-53.034,37	528.955,63	528.955,63	528.955,63	0,00
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	330.000,00	3.039,75	333.039,75	227.903,61	210.225,67	17.677,94
4. Transferentzia arruntak	24.000,00	-1.422,85	22.577,15	20.577,15	19.177,15	1.400,00
6. Inbertsio errealak	35.500,00	19.320,58	54.820,58	33.425,32	29.938,12	3.487,20
7. Kapital-transferentziak	0,00	64.710,14	64.710,14	0,00	0,00	0,00
8. Aktibo finantzarioak	6.000,00	-6.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9. Pasibo finantzarioak	100,00	-100,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Gastuak, guztira	977.590,00	26.513,25	1.004.103,25	810.861,71	788.296,57	22.565,14

Dirusarreraren kapitulu ekonomikoen arabera

	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Kobraturikoa	Kobratzeko
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	100,00	0,00	100,00	1.229,43	1.229,43	0,00
4. Transferentzia arruntak	935.740,00	0,00	935.740,00	935.742,00	935.742,00	0,00
5. Ondare-dirusarrerak	150,00	0,00	150,00	21,36	21,36	0,00
7. Kapital-transferentziak	39.002,00	0,00	39.002,00	39.000,00	39.000,00	0,00
8. Aktibo finantzarioak	2.498,00	26.513,25	29.011,25	4950,38	4950,38	0,00
9. Pasibo finantzarioak	100,00	0,00	100,00	0	0	0,00
Dirusarrerak, guztira	977.590,00	26.513,3	1.004.103,3	980.943,17	980.943,17	0,00

III.2. EGOERAREN BALANTZEA 2005eko ABENDUAREN 31n

AKTIBOA

Kt.	Kontzeptua	2005	2004	05/04 [«]
	IBILGETUA	251.779,82	222.644,88	29.134,94
	IBILGETU MATERIALA	243.360,24	211.434,92	31.925,32
202	Eraikuntzak	40.791,27	30.956,58	9.834,69
203	Makinak, instalazioak eta tresneria	38.487,17	38.487,17	0,00
205	Altzariak	76.258,97	61.833,90	14.425,07
206	Informazioa prozesatzeko tresneria	69.438,67	68.071,66	1.367,01
208	Bestelako ibilgetu materialak	18.384,16	12.085,61	6.298,55
	IBILGETU EZ-MATERIALA	8.419,58	8.419,58	0,00
215	Aplikazio informatikoak	8.419,58	8.419,58	0,00
	IBILGETU FINANTZARIOA	0,00	2.790,38	-2.790,38
254	Epe luzera emandako maileguak	0,00	2.790,38	-2.790,38
	ZORDUNAK (JABE EZ DIREN BESTE	0,00	2.160,00	-2.160,00
561	Aurrerakinak eta epe motzeko maileguak	0,00	2.160,00	-2.160,00
	FINANTZA- KONTUAK	253.217,56	89.502,01	163.715,55
570	Kutxa	234,99	297,40	-62,41
571	Bankuak eta kreditu-erakundeak	252.982,57	89.204,61	163.777,96
	AKTIBOA, GUZTIRA	504.997,38	314.306,89	190.690,49

PASIBOA

Kt.	Kontzeptua	2005	2004	Aldaketa,
	ONDAREA ETA ERRESERBAK	444.908,54	251.318,13	193.590,41
100	Ondarea	251.779,82	224.804,88	26.974,94
1291	Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak (Aplikatzeko	193.128,72	26.513,25	166.615,47
	Epe laburreko zorrak	60.088,84	62.988,76	-2.899,92
400	AITORTURIKO BETEBEHARREN HARTZEKODUNAK,	22.565,14	24.030,48	-1.465,34
401	Aitorturiko betebeharren hartzekodunak, indarreko	0,00	0,00	0,00
	ZORRAK ENTITATE PUBLIKOEKIN	37.523,70	38.958,28	-1.434,58
4750	NUIZarengatik hartzekodun den Ogasun Publikoa	25.105,80	0,00	25.105,80
4751	NUIZarengatik hartzekodun den Ogasun Publikoa	473,48	0,00	473,48
4759	Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketako	3.465,99	30.867,27	-27.401,28
477	Gizarte Segurantzaren hartzekoduna	8.478,43	8.091,01	387,42
	JASOTAKO GORDAILUAK ETA FIDANTZAK	0,00	0,00	0,00
520	Epe laburreko fidantzak	0,00	0,00	0,00
	PASIBOA, GUZTIRA	504.997,38	314.306,89	190.690,49

III.3. EMAITZEN KONTUA ETA EMAITZEN BANAKETA

2005eko ekitaldiko emaitza arrunten kontua (eurotan)

Gastuak	2005	2004	Dirusarrerak	2005
Langileen gastuak	541.699,67	531.471,72	Interesak	21,36
Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	215.159,57	292.838,75	Kapital-transferentziak	39.000,00
Transferentzia arruntak	20.577,15	26.909,37	Transferentzia arruntak	935.742,00
Ekitaldiko emaitza arruntak (etekin arrunta)	198.556,40	56.021,54	Bestelako ohiz kanpoko dirusarrerak	855.
			Bestelako diru sarrerak	1.229,43
Guztira	975.992,79	907.241,38	Guztira	975.992,79
				907.

2005eko ekitaldiko emaitzen banaketa

Kontzeptua	Euroak
Ekonomia eta ondare emaitza (1)	198.556,40
(+) Kreditu sarrerak (2)	26.513,25
(-) Ondare-gehikuntzak (3)	-28.474,94
Inbertsioak: 33.425,32	

AKTIBO ETA PASIBO FINANTZARIOEN ALDE GARBIA: -4.950,38

Ekonomia eta ondare emaitza doituak (4)	196.594,71
(-) Atxikitako funtsak, 2006an sartzeko daudenak	193.128,72
OGASUN PUBLIKOARI ITZULI BEHARREKO FUNTSAK	3.465,99

(1) Ekitaldiko emaitza arruntak, gastuen eta kontu horretara doazen dirusararren arteko aldea

(2) 2005eko kreditu-gehikuntzak, kreditu-gerakinaren bidez finantzatuak.

(3) Ondare-gehikuntzak, ekitaldiko inbertsioen zenbatekotik heldu direnak, eta finantza-aktibo eta -pasiboen aldaketa garbiak

(4) Ekitaldiko finantza-superabita, aurrekontuaren likazioaren egoera-orrriena

Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Corellako Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (7. or.).
- II. Helburua (8. or.).
- III. Norainokoa (8. or.).
- IV. Iritzia (8. or.).
 - IV.1. 2004ko aurrekontu bateratuaren lidakazioa (9. or.).
 - IV.2. 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (9. or.).
 - IV.3. Legezkotasuna (9. or.).
 - IV.4. 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera (9. or.).
 - IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharrak (9. or.).

IV.6. 2003ko txostenaren gomendioen jarraipena (9. or.).

IV.7. Jaialdia (9. or.).

IV.8. Laburpena eta ondorio nagusia (9. or.).

V. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (10. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa (10. or.).

V.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (11. or.).

VI. Gorabeherak (12. or.).

VII. Jaialdia (12. or.).

VII.1. Udalaren konpromisoak (12. or.).

VII.2. Antolatzailearen konpromisoak (12. or.).

Eranskina. 2004ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orri bateratuen oroitidazkia.

Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokortetako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos.

I. SARRERA

Corellako Udalak 7.495 biztanle ditu, eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2004ko abenduaren 31n:

(eurotan)

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileria
Udala	4.897.521	4.940.291	64
San José Zaharrentzako Egoitza	682.894	685.598	23
Bateratzearen doitzeak	(116.578)	(116.578)	
Guztira	5.463.837	5.509.311	87

Udala Moncayoko Uren Mankomunitatean eta Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatean sarturik dago, eta haien bitartez ematen ditu ur horniduraren eta zabor bilketaren zerbitzuak, hurrenez

hurren, eta sarturik dago orobat Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioan, Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoan, Errege Bardeako Komunitatean eta Eder Turismo Partzuergoan.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Corellako Udalak eta bere erakunde autonomoak 2004ko ekitaldian izan duten kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateei oro har aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Corellako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoera agertzea, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egin ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Corellako Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2003ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

g) Azkenik, udalaren osoko bilkurak eskatuta, 2004ko "Tintorro" jaialdiaren gastuak ere aztertu ditugu.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Corellako Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoaren –San José Zaharrentzako Egoitza– finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza eta 2004ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakina, eta 2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, bai eta udalaren finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrek ere, 2004ko ekitaldikoak.

Udalak Kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta, 2003ko ekitalditik aitzina, kontabilitatearen egoera-orri bateratuak dauka, udalari eta haren erakunde autonomoari dagozkienak.

Eginiko lanak aurrekontuaren betetzearen kapitulu ekonomikoen berrikuspena (aurrekontuko aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertu dira) eta ondare-masa ezberdinen berrikuspena (antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira) izan ditu ardatz nagusi.

Lana egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian gelditu diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean daude udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2005eko azaroan egin zen.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei.

IV. IRITZIA

Gauzaturiko fiskalizazioaren barruan, Corellako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren finantzen egoera-orri bateratuak, 2004ko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. 2004ko AURREKONTU BATERATUAREN LIDIKAZIOA

Erantsi ditugun 2004ko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsi dugun 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza- eta ondare-egoera, honako salbuespen hauekin:

- *Ondasunen inbentarioa (ibilgetua), 1991koa da, eta gaurkotzeko dago.*

- *Zalantza dago zenbait auzi eta erreklamazioen inguruan, eta horietatik pasiboak sor daitezke, baina 2004ko abenduaren 31n ez dago horien zenbatespen ekonomikoa egiterik.*

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren eta haren erakunde autonomoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezko-tasun-printzipioari jarraituz egiten da. Hala ere, txostenean zenbait gomendio egin ditugu, gai horri buruzko araudia hobeki betetze aldera.

IV.4. 2004ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontu bateratua, 2004an, 6.632.000 eurokoa izan zen, eta behin betikoa, 7.059.000 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 77,41ekoa du, eta dirusarrerena, berriz, ehuneko 78,05ekoa.

Dirusarreraren artean, zuzeneko zergen exekuzioa ehuneko 108,10,83koa izan da, eta zeharkakoena ehuneko 129,48,72koa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 32,73 egiten dute. Udalaren baliabideen ehuneko 43,1 inguru transferentzietatik datoz.

Ekitaldia ixtean aurrekontuaren superabit doitua 356.000 eurokoa zen.

Finantza zorra, 2004ko abenduaren 31n, 2.298.000 eurokoa zen (2.200.000 euro udalarenak ziren, eta 98.000 euro, berriz, erakunde autonomoarenak). Funts horien helburua, batez ere, obrak finantzatzea da.

Finantza-zama ehuneko 4koa da, aurrezpen garbia ehuneko 9koa, eta diruzaintzako gerakina, 586.000 milioi eurokoa.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago, oro har, egoera-orri horiek ongi interpretatu eta ulertzeko, udalaren oroitidazkiak agertzen duenez. Nolanahi ere, edukia osatu beharko litzateke, ikusirik:

- Ez da ageri inolako informaziorik kontratazio, konpromiso eta gorabehereri, udalaren egoera fiskalari, hurrengo urteetarako hartutako konpromiso-erri eta ekitaldia itxi ondoko gertaerei buruz.

- Hirigintza-kudeaketari buruzko informazioa.

IV.6. 2003ko TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Comptos Ganberak eginiko azken fiskalizazio txostenean jasotako gomendio buruz esan beharra dago aintzat hartu direla 2003ko ekitaldiari buruzko txosten hartan egindako administrazio eta kontabilitate izaerako gomendio nagusiak, eta horietako batzuk 2005ean jarri direla abian.

IV.7. JAIALDIA

Udalaren eta enpresa antolatzailearen arteko hitzarmen batek araututakoari jarraikiz antolatu zen 2004an Tintorrock izeneko pop-rock jaialdia.

Jaialdiak 16.050 euroko gastuak izan zituen guztira, eta egin dugun azterketan ez dugu hautesman nabarmentzeko moduko ezer, salbu eta ez zela lankidetzaren hitzarmenean jasotako gordailua egin.

IV.8. LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIA

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Corellako Udalak modu egokian kudeatzen duela aurrekontua, administrazio-ikuspegi batetik begiraturik. Hala ere, beharrezkoa du:

- *Aurrekontuko kudeaketaren barne kontroleko tresnak sendotzea, egindako operazioak bermatzeko edo idatziz jasotzeko, bereziki saldoak aztertu eta berdinkatzeari eta inbentarioak gaurkotzeari dagokienez.*

- *Kontratazio espedienteak osatzea, batez ere adjudikazioaren aurretiko jarduketan inguruan.*

- *Azterketa orokor bat egitea langileria kudeaketari buruz eta plantilla udalaren beharri-entzako egokia ote den jakiteko.*

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xeheaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Lurreko eta uretako sorospen zerbitzuaren kontratazio espedientea eta udako kirol jardueren programa ere –34.123 euro– aztertu ditugu. Zerbitzua 2004ko ekainean esleitu zen, prentsan iragarritako prozedura negoziatuaren bidez.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta aldaketa ezohikoak izan dituzten edo adierazgarrienak diren kontusailak ere aztertu ditugu.

Oro har, azterketaren ondorioa da hornidurak eta zerbitzu emateak kontratatuzeko prozedura egokia dela. Egindako azterketan oinarrituta, ondoko gomendioak ematen ditugu:

- *Udalaren kontratuen erregistro gaurkotua izatea.*

- *Udalean eta erakunde autonomoan aplikatutako erosketa-prozedura idatziz garatzea, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzailetzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.*

- *Kontratuak luzatzearen gaineko araudi indarduna betetzea; izan ere, luzatu diren kontratu batzuek 6 urteko gehieneko epea –Kontratuei buruzko Foru Legeak laguntza kontratuatarako ezarritakoa– gainditzen dute.*

V.1.2 Inbertsioak

Kapitulu ekonomiko honetan nabarmentzekoa da betetze maila, ehuneko 12,3koa, baxua izan dela, ez baitira bete aurrekontuan jasotako obra batzuk, hala nola Kultur Etxearen proiektua eta 2004ko hirurteko plana.

Hona hemen 2004an egin eta esleitutako inbertsio nagusien zehaztapena (inbertsio horiek 2004ko ekitaldian zehar aitorturiko betebeharren ehuneko 43 egiten dute, gutxi gorabehera):

Espedientea	Prozedura	Adjudikatutako zenbatekoa (BEZa barne)	Gastua, 2004
Garbitzeko makina erostea	Irekia, lehiaketa	71.920	71.920
Karpa erostea	Negoziatua, prentsan iragarri beharrekoa	58.900	60.034
Zezen plaza erostea	Hitzarmena	673.690	150.374
Plan partzialeko proiektuak, 2. banaketa-area	Lehiaketa	111.548	-
Guztira			282.328

a) Garbitzeko makina

- Garbitzeko makinaren erosketa 2004ko abenduan esleitu zen lehiaketa publikoan, prozedura irekiaren bitartez, 71.920 eurotan.

b) Karpa

Karparen erosketa 2004ko abuztuan esleitu zen, prentsan iragarritako prozedura negoziatuaren bitartez, 58.900 eurotan.

c) Zezen plaza

Corellako Udala 1940tik aitzina da, gutxi gorabehera, zezen plazako higiezinaren errentamendu kontratuaren titularra.

Kontuan izanda udalak zenbait inbertsio egin behar izan zituela zezen plazan berrikuntzak eta hobekuntzak egiteko –obrak jabeak egin behar zituela uste zuten, eta jabea 1995etik aitzinako errentamendua ari zitzaion eskatzen udalari–, 2004ko abuztuaren 24ko osoko bilkurak Corellako Udalaren eta zezen plazaren jabearen arteko trantsakzio-hitzarmen bat onetsi zuen. Hitzarmenean ondokoa erabaki zen:

- Jabeei egindako inbertsioak ez erreklamatzeko konpromisoa hartu zuen udalak.

- Jabeek uko egin zioten zor ziren errentak kobratzeari.

- Gutxienez ere jabegoaren ehuneko 51k adierazi behar zuen hitzarmenari lotzeko borondatea eta bere jabetzapean zegoena saltzeko konpromisoa.

2004ko abuztuaren 24ko osoko bilkuran orobat adierazi zen udalak zezen plaza 673.690 eurotan erosteko hartzen zuen konpromisoa.

Udalak hamabi titularren jabetzak erosi ditu 2004an zehar, 150.374 eurotan guztira.

d) Plan partzialeko proiektuak, 2. bakaneta-area.

Proiektu horiek 2004ko uztailean esleitu ziren, lehiaketa bidez, 111.548 eurotan.

Alor horretan aztertutako espedienteak aplikatzekoa den araudiaren arabera direla esan daiteke.

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuz, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriak buruzko gomendio nagusiak emango ditugu.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- Barne araubideari buruzko erregelamendu bat egitea, horren bidez definitu eta banatzeko udaleko organo exekutiboaren eskumenak eta erakunde autonomoarekiko harremanak.

- Langileria kudeaketaren azterketa orokorra egitea, honako hauek ikertuz: langileria atala sortzea komenigarria ote den eta udalaren beharretara egokituriko plantilla ote dagoen.

- Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jaretzea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.

- Udalaren eta erakunde autonomoaren arteko kontrola, kontu-hartzea eta babesa modu egokian bermatuko dituzten prozedurak taxutzea.

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua

- Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.

- 1991ko udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea ziurtatu eta erraztuko duena.

- Ibilgetuko dokumentazioa artxibatze eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.

V.2.3. Langileak

- Udalaren eta haren erakunde autonomoaren organigrama bat prestatzea.

- Nominen gainean aldizka egin behar diren egiaztapenak jasotzeko aukera ematen duen prozedura bat taxutzea.

- Arauetan aurreikusitako egunetan onetsi eta argitaratzea urteko plantilla organikoa eta langile funtzionarioen osagarri guztien eguneratzeak.

- Udaleko langileek aparteko orduak eginez gero, Langileen Estatutuan ezarritako gehieneko ordu kopurua errespetatzea.

- Zinegotzietan osoko bilkuretara joateagatik ordaindutako ordainsarien eguneratzeak urtero onetsi eta argitaratzea.

V.2.4. Transferentzia arruntak

- Emandako dirulaguntzak aztertze plan bat prestatzea, sistematikoki bide emanen duena ziurtatzeko egoki eman direla, herriko elkarteetara dirulaguntzak emateko udalak eginiko erregelamenduan ezarritako dauden betebeharrekin bat.

- Toki entitateek enpresei tributuen alorrean emandako onura fiskalak legedia indardunean ezarritakoetara mugatu behar dira.

V.2.5. Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

- Dirusarreraren errolden gainean egiaztapenak egin eta jasotzeko eta beste kontabilitate erregistro batzuekin alderatzeko aukera ematen duten prozedurak taxutu eta ezartzea.

- Erroldak eta haien aldaketak onestea haien kobrantza baino lehenago.

- Tasa eta prezio publikoak jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotzea.

V.2.6. Diruzaintza

- Erakunde autonomoaren eskudiruariaren kutxaren erabilera mugaturako eta kontrolerako prozedurak jasoko dituzten funtzionamendu-arauak prestatzea.

- Aldian aldiko berdinkatzeak, behar bezala dokumentatu eta ikuskatuak, egitea.

V.2.7. Alderdi orokorrak

- *Legediak ezarritako epeetan egin eta oneste aurrekontuak, kudeaketarako oinarrizko lanabesa izan daitezten.*

- *Aurrekontu-aldaketen espedienteak behar bezala osatzea, txosten idatzia eginez betiere, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean espedienteak osorik argitaratuz; denboraren aldetik ez du desfaserik egon behar kontabilizazioaren, informazioaren eta onespeneraren artean.*

- *Gastu guztiek izan behar dute, egin aurretik, kasuan kasuko baimena, eta beharrezkoa izanenean da behar adina aurrekontu-kreditu egotea.*

VI. GORABEHERAK

Ekitaldia ixtean udala administrazioarekiko auzi batzuetan sarturik dago, baina ez dago guztien zenbatespen ekonomikoa egiterik. Ebaluaturiko erreklamazio esanguratsuenek 120.824 euro egingen dute.

Auzi horiek direla eta pasiboak sortzen ahal dira, eta udalak, 2004ko abenduaren 31n, hornitu gabe dauzka.

VII. JAIALDIA

Tintorrock izeneko pop-rock jaialdiaren antolakuntzaz arduratzen den enpresak jaialdia Corellan egitea erabaki zuen 2004an, eta halaxe eskatu zion udalari, zeinari orobat eskatu baitzion lagun ziezaiola beste zenbait arlotan ere: instalazioen lagapena, agertokia, babes, saneamendua, osasun-estaldura...

Gobernu Batzordeak 2004ko uztailaren 28an onetsi zuen udalaren eta enpresa antolatzailearen arteko lankidetzaren hitzarmena. Hona hizpaketak:

VII.1. UDALAREN KONPROMISOAK

- Futbol zelaia eta futbol eskolaren instalazioak lagatzea jaialdiaren egunetan.

- Eremu mugatu batean behin-behineko kanpatzeko baimena.

- Segurtasun publikoari eta babes zibilari buruzko plangintza antolatzea: udaltzaingoa, foru-

zaingoa, guardia zibila, babes zibila eta Gurutze Gorria.

- Eguneroko garbiketa.

VII.2. ANTOLATZAILEAREN KONPROMISOAK

- Lagatutako instalazioak behar bezala erabiltzen direla kontrolatzea, eta egindako kalteez arduratzea.

- Erantzukizun zibileko aseguru bat, 600.000 eurokoa, kontratatzea.

- Musika ikuskizuna egin ahal izateko baimenak kreditatzea.

- Kanpaldi kontrolatua eta aparkatzeko eremua antolatzea.

- Bertaratutako ikusleentzat beharrezko ziren higie-ne nahiz osasun neurriak jartzea.

- 120.000 euroko gehienezko abala.

Udalak ez du gastu horiek islatzen dituen berariazko kontu bat. Halere, egindako azterketan eta udalak prestatu duen zerrendan ondoko gastuak aurkitu ditugu:

	Zenbatekoa (eurotan)
Osasun estaldura	3.400
Komunak eta garbiketa zerbizua alokatzea	3.310
Langileen gastuak	7.642
Bestelako gastuak	1.698
Guztira	16.050

Gastu horien azterketan ez dugu hauteman nabarmentzeko moduko ezer.

Jarduera hori dela eta:

Gure gomendioa da gisa horretako jaialdiei lotutako gastuak jasotzen dituen kontabilitate-erregistro berezitu edukitzea.

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria Luis Muñoz Garde

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 19an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Kontseiluari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldiko, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua eta norainokoa (13. or.).
- II. Iritzia (14. or.).
 - II.1. 2005eko aurrekontuaren betetzea (13. or.).
 - II.2. Ondare egoera (14. or.).
 - II.3. Legezkotasuna (14. or.).
- III. Finantzen egoera-orriak (15. or.).
 - III.1. 2005eko ekitaldiko gastuen eta dirusarren aurrekontuaren likidazioa (15. or.).
 - III.2. Egoeraren balantzea 2005eko abenduaren 31n (15. or.).
 - III.3. Eraitzen kontua eta eraitzen banaketa (16. or.).

I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren 2005eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena sartu zen 2006ko jarduketara programan.

Lan horrek ondoko helburuak ditu:

- 1. helburua. Nafarroako Kontseiluaren gastuen eta dirusarreren aurrekontuaren betetzeak 2005eko ekitaldian egindako eragiketarako behar bezala islatzen dituela egiaztatzea.
- 2. helburua. 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren isla egiaztatzea.

- 3. helburua. Fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezkotasun printzipioa bete ote den egiaztatzea.

Metodologiari dagokionez, lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, Comptos Ganbera honek erabili ohi dituen auditoria prozedurak eta programak erabili ditugu, bere Auditoria Gidan jasota dituenak eta Espainiako estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriarako onetsiriko arau eta printzipioei jarraituz garatuta daudenak.

2005eko ekitaldian Nafarroako Kontseilua ez da jada sartzen aparteko programa gisa Nafarroako kontu orokorretan, bere kontabilitate berekia baitu.

Fiskalizatutako ekitaldian hauxe azpimarratu behar dugu:

- Kontseiluak bi langile ditu: legelari bat eta idazkari bat.
- Nominak Nafarroako Gobernuak prestatu eta ordaintzen ditu; Kontseiluari egindako transferentzia gisa erregistratzen dira zenbatekoak.
- Aurrekontua 589.417 eurokoa da; gastuen betetzea 313.465 eurokoa da, eta dirusarrerena, berriz, 479.903 eurokoa; alegia, gastuen betetze maila ehuneko 53koa da, eta dirusarrerena ehuneko 81ekoa.
- Nafarroako Kontseiluak, kontsulta eginkizunak betetz, 61 irizpen eman ditu ekitaldian eta 20 bilkura egin.

Azterketa-lana 2006ko maiatzean egin zuten auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Nafarroako Kontseiluko langileen laguntza, lan hau egitea erraztu duelako.

II. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Kontseiluaren 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-orriak aztertu ditugu. Kontseiluaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako III. atalean jaso dugu horien egoera.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

II.1. 2005eko AURREKONTUAREN BETETZEA

2005eko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala islatzen du ekitaldi horretan egindako jarduera.

Halere, nabarmendu beharra dago ezen aurreko ekitaldietako atzerapenak ordaindu zaizkiela langileei 2005eko ekitaldian –2.189 euro–, ordaindu gabe zeudenak nominen programa aldatu zelako.

II.2. ONDARE-EGOERA

Egoera-balantzeak behar bezala agertzen du finantza eta ondare-egoera 2005eko abenduaren 31n.

II.3. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Kontseiluak 2005eko ekitaldian izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera legez-kotasun-printzipioaren arabera izan da.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

III. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**III.1. 2005eko EKITALDIKO GASTUEN ETA DIRUSARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera

	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Ordain- dutakoa
1. Langileria gastuak	181.304,00	0,00	181.304,00	111.921,62	111.921,62
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	358.613,00	0,00	358.613,00	192.179,10	192.179,10
6. Inbertsio errealak	49.500,00	0,00	49.500,00	9.364,48	9.364,48
Gastuak, guztira	589.417,00	0,00	589.417,00	313.465,20	313.465,20

Dirusarreraren kapitulu ekonomikoen arabera

	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Kobratutakoa
4. Transferentzia arruntak	539.917,00	0,00	539.917,00	470.534,62	470.534,62
5. Ondare-dirusarrerak	0	0,00	0	3,99	3,99
7. Kapital-transferentziak	49.500,00	0,00	49.500,00	9.364,48	9.364,48
Dirusarrerak, guztira	589.417,00	0,00	589.417,00	479.903,09	479.903,09

III.2. EGOERAREN BALANTZEA 2005eko ABENDUAREN 31n

AKTIBOA

Kontzeptua	2004	2005
IBILGETUA	49.331,49	58.695,97
IBILGETU MATERIALA	49.133,13	55.410,21
Altzariak	9.713,25	10.931,33
Informazioa prozesatzeko tresneria	13.220,68	17.579,68
Irudi korporatiboa	4.890,00	5.590,00
Bestelako ibilgetu materialak	21.309,20	21.309,20
IBILGETU EZ-MATERIALA	198,36	3.285,76
Aplikazio informatikoak	198,36	3.285,76
FINANTZA- KONTUAK	0,00	166.437,89
Diruzaintza	0,00	166.437,89
Bankuak eta kreditu-erakundeak	0,00	166.437,89
AKTIBOA, GUZTIRA	49.331,49	225.133,86

PASIBOA

Kontzeptua	2004	2005
FUNTS PROPIOAK	49.331,49	58.695,97
Ondarea	49.331,49	58.695,97
Epe laburreko zorrak		166.437,89
Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketako hartzeko- duna		166.437,89
PASIBOA, GUZTIRA	49.331,49	225.133,86

III.3. EMAITZEN KONTUA ETA EMAITZEN BANAKETA

2005eko ekitaldiko emaitza arrunten kontua (eurotan)

ZORRA		HARTZEKOA	
111.921,62	Langileria gastuak	Finantza dirusarrerak	3,99
192.179,10	Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	Transferentzia arruntak	470.534,62
		Kapital-transferentziak	9.364,48
175.802,37	Aurrezkia (emaitza positiboa)		
479.903,09	Guztira	Guztira	479.903,09

Emitza doitua

ZORRA		HARTZEKOA	
175.802,37	Ekonomia eta ondare emaitza	Ondarea (Inbertsio garbi aktibatuak)	9.364,48
		Emitza ekonomiko eta ondareko doitua	166.437,89
175.802,37	Guztira	Guztira	

2005eko ekitaldiko emaitzen banaketa

ZORRA		HARTZEKOA	
166.437,89	Emitza ekonomiko eta ondareko doitua	Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketako hartzekoduna.	166.437,89
166.437,89	Guztira	Guztira	166.437,89

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urtebete 43,95 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
---	---